**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN, SAILAREN 2021. URTEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (DPE) ALDATZEN DUENA**

2021erako Hezkuntza Sailaren DPE 2021ko martxoaren 23ko Aginduaren bitartez onartu zen.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Dirulaguntzen Plan Estrategikoei buruz 2015eko irailaren 18an eman zuen 01/15 zenbakidun zirkularrak ezarritakoari jarraiki, eta, era berean, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan jasotakoa betetzeko:

> *“Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.”*

Aurrekoa betez, zenbait zuzendaritzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko eskatu dute, sortu diren premia berriak ikusita.

Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzak beharrezkotzat jo du HEZKOOP-2024 deialdirako kreditua handitzea.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak hala aginduta, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak dirulaguntzen deialdi publiko bat egitea erabaki du, zuzeneko dirulaguntza baten ordez.
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak "Batxilergoko Sari Bereziak" arautzen dituen araudia aldatu du, eta diru-zuzkidura mantentzen bada ere, gastua 7. kapitulutik 4.era igaro da.

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak, deialdi batzuen azken plangintza egin ondoren, egokitzat jotzen du aipatutako deialdietako hiru aldatzea eta zuzeneko bi dirulaguntza sartzea:

- 280.000 eurora murriztu da 2024-2025 ikasturtean irakasleak prestatzeko jarduerak egiteko zuzkidura.
- LHko ikasleen ekintzailetza-kultura sustatzeko dirulaguntzei dagokienez, kreditua 166.000 eurora igo da.
- Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planean eta, zehazkiago, "5.0 LHko ikastetxe adimendunak, LHko ikastetxe-eredu berria" orientazio estrategikoaren ardatzean, 5.0 LHko zentro adimendunen kopurua nabarmen handitzea espero da; beraz, kreditua 3.068.400 eurora igo behar da.
- Zuzeneko dirulaguntza lanbide-heziketako 14 ikastetxe bateraturi, ekintzailetza-gelak sortzeko - "Lanbide-heziketa bultzatzeko plan estrategikoa".

**ORDEN DEL CONSEJERO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE MODIFICA EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES (PES) DEL DEPARTAMENTO PARA EL AÑO 2021**

El PES del Departamento de Educación para el año 2021 se aprobó mediante Orden de 23 de marzo de 2021.

De conformidad con lo establecido en la Circular número 01/15, de 18 de septiembre de 2015, dictada por la Oficina de Control Económico y relativa a la Elaboración de los Planes Estratégicos de Subvenciones, así como, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

> *“Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.”*

En cumplimiento de lo anterior, varias direcciones han solicitado la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones a la vista de las nuevas necesidades surgidas.

La Dirección de Infraestructuras, Recursos y Tecnologías ha considerado necesario incrementar el crédito para la convocatoria HEZKOOP-2024.

La Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa, por indicación de la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios, ha optado por una convocatoria pública de subvenciones en lugar de una concesión directa.
La Dirección de Centros y Planificación ha modificado la normativa que regula los "Premios Extraordinarios de Bachillerato" y aunque se mantiene la dotación económica, el gasto pasa del capítulo 7 al 4.
La Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados, tras la planificación final de algunas convocatorias, considera oportuno modificar tres de las citadas convocatorias e incluir dos subvenciones directas:

- Se ha reducido a 280.000 euros la dotación para la realización de actividades de formación del profesorado durante el curso 2024-2025.
- En cuanto a las subvenciones destinadas a fomentar la cultura emprendedora del alumnado de FP, el crédito se ha incrementado a 166.000 euros.
- En el Plan de Transformación Digital del Sistema Educativo Vasco y, más concretamente, en el eje de orientación estratégica "5.0 Centros inteligentes de FP, nuevo modelo de centro de FP", se espera un incremento significativo del número de centros inteligentes de FP 5.0, por lo que es necesario aumentar el crédito a 3.068.400 euros.
- Subvención directa a 14 centros integrados de formación profesional para la creación de aulas de emprendimiento - “Plan estratégico de

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

- Zuzeneko dirulaguntza lanbide-heziketako itunpeko ikastetxe integratu bati: "Lanbide-heziketa bultzatzeko plan estrategikoa".

Ikerketa Zuzendaritzak ez zuen aurreikusten ekitaldi honen hasieran zuzeneko hainbat dirulaguntza ematea, eta horiek ere sartu behar dira, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7. artikuluan eskatutakoaren arabera.

Horiek horrela, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 4. artikuluak esleitzen dizkidan eskumenez baliatuz,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Aipatutako dirulaguntzen lerroetan Hezkuntza Sailaren 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea..

**Bigarrena.-** Agintzea Sailaren euskadi.eus webgunean argitara ematea.

impulso de la formación profesional".

- Subvención directa a un centro concertado integrado de formación profesional: "Plan estratégico de impulso de la formación profesional".

La Dirección de Investigación no preveía al inicio del presente ejercicio la concesión de diversas subvenciones directas, que también deben incluirse, tal y como exige el artículo 7 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen Subvencional.

Así, en virtud de las competencias que me atribuye el artículo 4 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

**RESUELVO:**

**Primero.-** Aprobar la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Educación para 2024 en las líneas subvencionales citadas.

**Segundo.-** Ordenar que se dé publicidad mediante su inserción en la web euskadi.eus del Departamento.

**Izp./Fdo. JOKIN BILDARRATZ SORRON**
**HEZKUNTZA SAILBURUA**
**CONSEJERO DE EDUCACIÓN**